Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Andone Bidaguren Bilbao

Gernika-Lumo, Bizkaia
(1927-2024)



Aurkibidea

Biografia



Ajangizen jaio arren, Errenteriatik joanda lehenengo etxean, hiru urterekin Barrutiko (Kortezubi) Musoerdira joan ziren. Hala ere, beti ibili izan da Gernika-Lumon; 22 urterekin bertako Gotzon Bareñorekin ezkondu ostean bertara joan zen bizitzera eta bertan bizi izan da ordudanik. Gerra sasoian, gudariak eta militarrak izan zituzten Musoerdin; bere aita preso hartu zuten eta hiru urte eta erdiz egon zen Lekeition, Bilbon eta Pontevedrako San Simón irlako espetxean. Umetan, Gernikako karmeldarren ikastetxean ibili zen, baina bonbardaketa ostean, Kortezubira joan behar izan zuten. Ezkondu aurretik, Bodegoian ibili zen lanean, eta ezkondu ostean, merkatu-plazako bi harategitan eta Aterpe tabernan. Seme bakarra izan zuen.

Zintak

GER-049

- **Proiektua**: Gernika-Lumoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data**: 2010-10-27
- **Iraupena**: 64 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea

GER-050

- **Proiektua**: Gernika-Lumoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data**: 2010-10-27
- **Iraupena**: 46 min
- **Euskarria**: Bideo digitala

Pasarteak

1. Barrutiko "cura Puñetas"

- **Erref**: GER-049/002
- **Iraupena**: 0:01:51. **Hasi**: 00:03:08. **Bukatu**: 00:04:59
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:
Barrutiko Torreko "Cura Puñetas": zergatik deitzen zioten horrela azaltzen du: zaldi zuri batez etortzen zen Gernikara meza ematera eta zaldiak korrika egiteko "arre puñetas!" esaten zion. Barrutiko ermitan ematen zuen meza, gerora ez zuten mezarik ematen bertan.

2. Barrutiko jaiak

- **Erref**: GER-049/003
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:04:59. **Bukatu**: 00:05:59
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara

Laburpena:
San Zeledonio da Barrutiko jaieguna, oso jai politak izaten ziren. Edan barik ospatzen zituzten, dantzan.

3. Eskolara gutxi: amari lagundu behar

- **Erref**: GER-049/004
- **Iraupena**: 0:03:34. **Hasi**: 00:05:59. **Bukatu**: 00:09:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

4. Karmeldarretara

- **Erref**: GER-049/005
- **Iraupena**: 0:01:37. **Hasi**: 00:09:33. **Bukatu**: 00:11:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:
Karmeldarren ikastetxeko "Hermana Eusebia" ona zen, besteak, ostera, sorginak. Ordu erdiko bidea zuten.

5. Gudariak eta militarrak etxean

- **Erref**: GER-049/006
- **Iraupena**: 0:02:21. **Hasi**: 00:11:10. **Bukatu**: 00:13:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:
Etxea gudariz beteta egoten zen, beste etxe asko bezala. Gipuzkoarrak ziren gehienak. Gose ziren eta haiei jaten ematen zieten. Militarrak sartu zirenean, militarrez bete zitzaien etxea; eta, bitarte horretan, beraien aita preso. Amari berdin zitzaion zeini eman jaten, azken batean, gosez baitzeuden denak.

6. Militarrekin hartu-eman ona

- **Erref**: GER-049/007
- **Iraupena**: 0:02:21. **Hasi**: 00:13:31. **Bukatu**: 00:15:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:
Militarren kapitaina izan zuten etxean, eta oso ondo portatu zen beraiekin: kapitainari esker, aita salbatu zen; eta bere ahizpa txikia, gaixorik zegoena, egunero Lekeitio ondora medikuarenera eraman zuten.

7. Aita hiltzetik salbatuta

- **Erref**: GER-049/008
- **Iraupena**: 0:03:33. **Hasi**: 00:15:52. **Bukatu**: 00:19:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

Laburpena:
Kapitaina etxean zutela, beste agintari batzuk joan ziren aitaren bila; baina, kapitainari eskerrak, ez zuten eraman. Auzoko batzuek salatu zuten bere aita.

8. Aita kartzelan zorriz eta zikinkeriaz beteta

- **Erref**: GER-049/009
- **Iraupena**: 0:02:33. **Hasi**: 00:19:25. **Bukatu**: 00:21:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:
Bere aita atxilotu zutenean, luzaro egon ziren hari buruzko ezer jakin barik. Lekeition, Bilbon eta Pontevedran egon zen. Galiziako kartzela uharte batean zegoen, lepra zuten gaixoen bizilekua zen. Zikinkeria itzela izaten zuten: gutunetan zorriak, handi-handiak, bizirik heltzen ziren.

9. Diru barik; kartzelako gutunak

- **Erref**: GER-049/011
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:22:37. **Bukatu**: 00:25:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera

Laburpena:

10. Salatari asko

- **Erref**: GER-049/013
- **Iraupena**: 0:00:52. **Hasi**: 00:25:52. **Bukatu**: 00:26:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

Laburpena:
Bere aita auzoko batek salatu zuen. Gudariei jaten emateagatik eraman zuten kartzelara. Salatari asko egon zen han sasoian: ikusiezinagatik salatuak eta horren erruz hildakoak.

11. Bonbardaketa osteko lapurretak

- **Erref**: GER-049/017
- **Iraupena**: 0:02:17. **Hasi**: 00:29:48. **Bukatu**: 00:32:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian

Laburpena:
Jende asko lapurretan hasi zen, Errenteria auzoko denda askotan ostu zuten bertakoek, aurrez aurre ikusi zituzten lapurretok. Hainbat gauza kalera atera zituzten eta beraiek "baiariñe", belarra altxatzeko tresna bat, eraman zuten etxera, baina bere aitak ordaindu egin zuen. Gero, ordea, beraiei ostu zieten.

12. Bonbardaketako gezurrak

- **Erref**: GER-049/020

- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:43:21. **Bukatu**: 00:45:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Gernika-Lumo Francoren aldekoek erre arren, gorriek suntsitu zutela zabaldu zuten eta hori entzun eta jasan behar izan dute urte askoan. Andonek beti aldarrikatu du hori. Alemaniarrek bonbardatu arren, gernikar batek eman zituen erasorako erabili zituzten planoak.

13. Bonbardaketa eguna

- **Erref**: GER-049/021
- **Iraupena**: 0:03:05. **Hasi**: 00:45:41. **Bukatu**: 00:48:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Bonbardaketa egunean, bere ama goizetik joan zen Gernikara esnea banatzen. Lehen abioia salataria zen, haren ostean beste hiru eta beste hiru eta beste hiru... etorri baitziren. Bera Oleskoko erreka batean babestu zen neba bigaz batera. Iluntzera arte egon ziren uretan, jende guztia egon zen txilioka eta inguruko etxeak jendez bete ziren.

14. Bonbardaketa ostean, inguruko etxeak beteta

- **Erref**: GER-049/022
- **Iraupena**: 0:02:14. **Hasi**: 00:48:46. **Bukatu**: 00:51:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:
Bonbardaketa ostean, inguruko etxean jendez bete ziren. Andoneren etxean andre bat bere sei hilabeteko ume bikiekin egon zen. Umeak gose ziren, baina ez zuten jateko askorik emateko. Auzoko batzuen arkumeen biberoiarekin behi esnea eman zien.

15. Baserrian ez zuten goserik

- **Erref**: GER-049/023
- **Iraupena**: 0:02:52. **Hasi**: 00:51:00. **Bukatu**: 00:53:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Ez zuten goserik pasatu, baserrian denetarik zuten: labeko sua (ogia) astelehenero egiten zuten aste guztirako; errazionamenduan hartzen zuten

ogi-txuskoa, azukrea... 9 urterekin legamiak (lebadurak) egiten egoten zen bere senarraren aititarekin Oleskoko okindegian.

16. Errotak zarratuta; garia eta artoa entregatu beharra

- **Erref**: GER-049/024
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:53:52. **Bukatu**: 00:56:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:
Gerraostean, errota denak zarratu zituzten, baina gauez tranpa egiten zuten: prezintua kendu eta zabaldu. Arratzura joaten ziren goizaldeko orduetan. Egunez, Lagako errotara joaten ziren astoz. Taloa, morokila eta ogia egiten zuten. Gainera, garia, artoa, patata... herrira entregatu behar izaten zuten.

17. Errazionamendua eta estraperloa

- **Erref**: GER-049/025
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:56:37. **Bukatu**: 00:58:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Errazionamendua nahiko urria zela dio. Tabakotan Arratzura joan behar izaten zuten, baina bestela errazionamendu bila Gernikara etorri behar izaten ziren. Ilarak oso luzeak izaten ziren, orduetakoak. Estraperloa ere ugaritu zen eta etxe eta terreno asko errekisatu zituzten.

18. Bonbardaketa aurreko Gernika

- **Erref**: GER-049/027
- **Iraupena**: 0:04:08. **Hasi**: 00:59:52. **Bukatu**: 01:04:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-20

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com